

1924

2024



JAZ

SPAIN
T. +34 943 120 600
info@jazzsurface.com
Polígono Ind. Azitain 4
20600 Eibar - Spain

USA
T. 877.529 8721
info@jazzsurface.com
59 Tarkiln Place
New Bedford, MA 02745 - USA

www.jazzsurface.com

B **P** BASQUE
I **D** PRECISION
TECHNOLOGY
DISTRICT
We Make!

100 urteko bikaintasuna
gainazaleen tratamenduan.



JAZ

SURFACE EXPERTS

JAZ®

JAZ-EN BIDAIA

100 urteko bikaintasuna
gainazaleen tratamenduan.

JAZen ehun urteko historiak hiru bereizgarri ditu: kalitatea, zerbitzua eta berrikuntza etengabe lantzea. 1924an sortu zenetik, gure enpresak konpromisoa hartu du gainazalak tratatzeko soluzio espezializatuak fabrikatzeko eta merkaturatzeko; batez ere, materialak garbitzeko, testurizatzeko eta bizar-kentzeko.

Gure lanetan mende bateko esperientzia izanik, nazioarteko posizionamendua egonkortu dugu Espainiako merkatuan lider gisa kokatuta, AEBetan dugun presentzia handituz eta gure produktuak 65 herrialde baino gehiagotara esportatuz.

JAZ Surface Experts gara, gainazalen tratamenduaren sektorean erreferenteak.

1924 — Lehen urteak

Domingo Zubiaurre leuntzaile-familia eibartar bateko kidea zen, eta metalezko eskuilak fabrikatzen hasia erabaki zuen. Produktu hori ondo ezagutzen zuen bertako armagintza-industrian lan egiten zuelako. Lehen garai hartan Arragueta kalean zuen kokatuta lantegi xumea, Gerra Zibila iritsi arte. Ondoren, Legarre kalera lekualdatu zen. 1924tik 1957ra arte **artisansau-jarduera** izan zen, **erabat familiarra**, eta bezero bakar bati eskaini zion arreta: UNCETA, Eibarren egoitza zuen hornidura industrialia, 1874an sortua eta herriko eta inguruko industria-sare zabalerako tresnen salmentan espezializatua.



1957 — Artisautzatik industrializaziora

Javier Zubiaurrek, Eibarko Armagintza Eskolan trebatutako peritu eta enpresaren sortzailearen semeak, familiaren jarduerarekin bat egin eta bere garapen tekniko eta komertziala bultzatu zuen. Jarduera Jardines-Muzategi kaleetako instalazio berrietara lekualdatu zen. Bertan, 1957ko Ullastresko krisiak bezero berrien bilaketa bultzatu zuen, eta bezero horiekin **enpresaren hazkundea** hasi zen pertsona gehiago sartzea eta produkzio-ekipo modernoak eskuratzea erraztuz.

1970 — Nazioartekotzea

1970eko hamarkadan enpresak **hazten jarraitu zuen**, bai barrurantz eta baita kanporantz ere. Izan ere, aldi horretan hasi zen gure kanporako hedapena, Alemanian eta Estatu Batuetan saltzen hasitakoan. Aldi berean, aldaketa esanguratsua egin genuen gure kokapenean, eta Asuarreka kaleko industria-pabiloi batera lekualdatu ginen. Pabiloi horrek **4.000 metro karratuko azalera** zuen, gerraosteko Eibarko eraikuntza-estilo tipikoko lau solairutan banatuta. 1996an, **JAZ**ek Kalitatea Ziurtatzeko **ISO 9000 ziurtagiria** lortu zuen. Hori eskuratu zuen nazioarteko bigarren eskuilagintza enpresa izan zen.



1997 — Zabalkundea

1997. urtean, gure enpresak **beste eraldaketa bat** egin zuen. Azitaingo industrialdeko egungo instalazioetan hasi ginen lanean, **7.000 m²-ko azalera** duen espazioan. Harrezkero, gure produkzio-prozesuetan hobekuntzak egin ditugu, gure ekipoak modernizatu ditugu eta gure produktuak berritu ditugu, nazioarteko patenteak lortuz eta berrikuntza teknologikoaren arloan sariak jasoz.



1999 — JAZ USA

1999an gure filiala sortu genuen Ipar Amerikan, **JAZ USA, Inc.** Lehenengo urteetan zailtasunak izan baziren ere, etengabeko lanak eta finantza-baliabide garrantzisuek filialaren hazkundea ahalbidetu zuten, gaur egun AEB gure lehen merkatua izatera igaroz, non fakturazioaren erdia baino gehiago sortzen den.



2020 — Erronka berriak

Azkenaldian, metalezko eskuilen fabrikatzaile hutsak izatetik gainazalen **tratamendurako soluzioetan aditu bihurtzeko** trantsizio-prozesuari ekin diogu. Gure irudi korporatiboaren azken berrikuntzak balio behar digu gure ezagutzagatik eta esparru horretan eskaintzen dugun soluzio-eskaintza zabalagatik ezagunak izateko.

Gure helburu nagusiari eusten diogu: denboran irautea eta **modu iraunkorrean hazten** jarraitzea, talde batua, hurbila eta fidagarria izanda, balioa eta ongizatea sortzen dituen.